

BASKEPENSIONES BURTSA GLOBALA GAPI

INBERTSIO POLITIKA

Arriskua bere gain hartzen duten eta Nazioarteko Burtsetako baloreetan inbertitu nahi duten pertsonentzat, %75 eta %100 bitartean.

2020/12/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%2,44	%11,02	%3,93	%3,93	%3,54	%4,60	%5,16

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
%3,93	%22,41	-%12,78	%10,83	%1,76	%2,84	%4,58

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2020/12/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%25,03
Lurrunkortasun 3 urte**	%17,03

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzinatasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

HILEKO IRUZKINA

Urteko azken hilabetean Covid-19aren eboluzioa, Brexit eta Amerikako zerga pizgarrien pakete berria onartzea izan dira gertakari nabarmenenak. Pandemiari aurrera jarraitu ahala, osasun arloko berriak taldeko immunizazioa lortzeko abian jarritako txertoak jartzeko kanpainaren inguruan ziren. Hilean zehar hiru txerto baimendu direnean (Pfizer, Moderna eta AstraZeneca), birusaren mutazio berri bat agertzeak berri ekarri zuen ziurgabetasuna, aurrekoa baino kutsakorragoa baita, eta neurri berriak hartu behar izan ziren, haien eragin ekonomikoarekin. Arlo politikoa, Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko akordioak haustura gauzatu zuen, 48 urtez Erresuma Batua europar proiektuaren parte izan ondoren. Europar Txinarekin itxitako akordioa ezagutu genuen, Txinako merkatuari

europar inbertsioetarako sarbidea errazteko helburuarekin. Atlantikoaren beste aldean, hileko azken astean 2021eko aurrekontuak eta zerga pizgarrien pakete berria sinatu ziren. Sinatze horrekin, Trumpek amaiera ematen zion Administrazioaren blokeoari, eta hurrengo urteko irailera arte bermatu zuen haren funtzionamendua. Kongresuak, ondorioz, orain arte adostutako transferentzien zenbatekoaren 600 euroko igoera onartu behar izan zuen. Handik egun batzuetara, McConnellék ordainketa zuzenak 2.000 dolarrera igotzeko Lege proiektua atzera bota zuen eta, dirudienez, 2021ra arte itxaron beharko dugu nola bukatzen den ikusteko. Diru politika arloan, Europar BCEak pizgarrien plana espero zein intentsitatearekin areagotu zen eta 2022ko martxora arte luzatu zen. AEBan, FEDak ez zuen

aldaketarik egin diru politikan, ezta Ingalaterrako Bankuak eta Japoniako Bankuak ere. Testuinguru horretan, abenduan positiboan itxi zituzten plaza nagusiak. Azaroko euforiaren ondoren, hilaren lehenengo zatian hobetze ekonomikoko funtsaren blokeoa, Amerikako zerga paketearen onespeneren inguruko zalantzak eta Brexita izan dira aipagarrienak. Izan ere, urte bukaerara gerturatu ahala, eta banku zentralak baldintzarik gabe funtsekin lagundu ondoren, merkatuek baikortasunez hartu zuten gatazka horiek konpontzea. Hortaz, Ipar Amerikako indizeek maximo historiko berriekin itxi zuten urtea. Europan, Eurostoxx indizeak ere berdean itxi zuen hilea % 1,72ko igoerarekin. Nazioarteko gainerako merkatuetan, Nikkei azken 30 urteotako maximoetara iritsi zen eta abendua % 3,82ko igoerarekin

itxi zuen. Emergenteak, aldiz, oro har, % 7,15 igo ziren. Salbuespena espainiar burtsa izan zen. Ia batere aldaketarik gabe itxi zuen hila. Errenta Finkoan, aldiz, mugimendu gutxi Alemaniako zor subiranoko errentagarritasunetan, eta tasen gorakada Atlantikoaren beste aldean. 10 urterako bonu germanikoak -% 0,57arekin itxi zuen, eta amerikarrak, aldiz, abenduan igo bazen ere, % 0,90etik gora jarri zen. Espainiar zorraren kasuan, 10 urterako bonuaren errentagarritasunak % 0-tik gora (%0,05) bukatu zuen eta arrisku prima 3pbs murriztu zen, 62pbsak arte. Kredituak, bestetik, diferentzialak estutu zituen, kreditu kalitate eskaseneko bonuen kasuan bereziki. Dibisen merkatuari dagokionez, dolarrak ahul jarraitu zuen euroarekiko, zeinaren truke tasa maximoetan jarraitu zuen 2018az geroztik.

EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	233.189.595,96
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbultso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Oso Altua
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-



Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
PT. KUTXABANK BOLSA INTERNACIONAL CLASE CARTERA	%18,39
PT. KUTXABANK BOLSA EUROZONA CLASE CARTERA	%13,73
PT. KUTXABANK BOLSA EMERGENTES CLASE CARTERA	%11,83
PT. KUTXABANK BOLSA SECTORIAL CLASE CARTERA	%11,71
PT. KUTXABANK DIVIDENDO CLASE CARTERA	%11,20

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala



BASKEPENSIONES BURTSA GLOBALA GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

BASKEPENSIONES BURTSA GLOBAL PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISQUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

ZEURE
B
PLANA

**BASKE
PENSIO
NES**

BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión
IKESK SAU Ondare
Kudeatzailea.



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:
SIMULAGAILUA